

DOMINGO MARTÍNEZ FUNDAZIOA: PROIEKTUETARAKO DIRU LAGUNTZEN DEIALDIA 2018

Materialen arloa

Ikerketako gaia:

"CO2ren konbertsiorako teknologiak berotegi efektua murrizteko".

Proiektuen iraupena:

Proiektuen iraupena urtebetekoa izango da, bigarren urtez ere luza liteke eta, salbuespen gisa, hirugarren urtez.

Finantzaketa:

Diru laguntza bakarra emango da, urtekoa: 40.000 euro.

Ikertzaile nagusiak bete beharreko baldintzak:

- Espaniar nazionalitatea edo bizileku iraunkorra Espainian izatea.
- Doktore titulua
- UPV/EHUrekin funtzionario edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztean eta eskatutako diru laguntzaren iraunaldi osoan zehar.

Ikertaldeko kideek bete beharreko baldintzak:

- UPV/EHUrekin funtzionario edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztean.
- Espaniako edo beste herrialde batzuetako beste ikastegi batzuekiko lotura.

OHAR GARRANTZITSUA: Baldin eta diru laguntza gauzatu bitartean ikertaldeko ikertzaileei UPV/EHUrekin duten lotura amaitzen bazaie, ezin izango dute gasturik egotzi aipatutako egoeran dauden bitartean. Ikertzaile nagusiak eman beharko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari proiektua gauzatu bitartean gertatzen diren bajen berri.

Aurkeztu beharreko dokumentuak:

- Eskaera online bidez, FDM fundazioaren aplikazioa erabiliz: www.fundaciondm.org
- Ikertaldeko kide guztien CVa.
- Parte hartuko duten ikertzaile guztien zerrenda, haietako bakoitzak sinatuta.
- Memoria zientifiko-teknikoa.
- UPV/EHUren baimena, **Ikerketaren arloko errektoreordeak sinatuta.**

Aurrekontua prestatzeko jarraibideak:

UPV/EHUren bidez aurkeztutako eskaerek zehar kostuen % 5a jaso beharko dute aurrekontuan.

OHAR GARRANTZITSUA: 2008ko apirilaren 29ko Erabakian –horren bidez agintzen da UPV/EHUko Estatutuen 315. artikuluaeren garapen arautegia argitaratzeko-jasotakoa aplikatuz, irakasle-ikertzaileek **ezin izango dute nominan ordainsaririk jaso deialdi honen bitartez.**

Eskaerak aurkezteko epea:
2018ko otsailaren 20ra arte

Eskaerak UPV/EHU n aurkezteko prozedura:

EPEMUGA	ARDURADUNA	IZAPIDEA
2018ko otsailaren 2a	Ikertzaile nagusia	Bidali "Proposatutako taldea berrikusteari buruzko eranskina": convocatorias.dgi@ehu.eus ,
2018ko otsailaren 14a Data horretatik aurrera ez da bermatuko IA Eren baimena epe barruan bueltatuko denik	Ikertzaile nagusia	Bidali aurrekontua berrikus dadin: convocatorias.dgi@ehu.eus . Fase honetan ez da memoria zientifiko-teknikoa bidali behar. IAEk parte hartzeko baimena egingo du.
2018ko otsailaren 20a	Ikertzaile nagusia	Bidali eskaera osoa artxibatzeko: convocatorias.dgi@ehu.eus .

OHAR GARRANTZITSUA: Ikertzaile nagusiak aurkeztu beharko du eskaera, dagokion epean, fundazioaren aplikazioa erabiliz:
<http://www.fundaciondm.org/index.php/acceso-privado>.

UPV/EHUren datuak eskaera orria betetzeko:

Hauek dira erakundearen (UPV/EHU) datuak eskaera betetzeko:

- Ordezkarri legala: José Luis Martín González
- Kargua: Ikerketaren arloko errektoreordea
- IFK: Q-48/18001-B
- Helbide soziala: Sarriena auzoa, z.g.
- Posta kodea: 48940
- Herria: Leioa
- Helbide elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.eus

Domingo Martínez Fundazioarekin harremanetan jartzeko:

- Telefonoa: 983 391 982
- E-maila: fdm@fundaciondm.org

UPV/EHUko kontaktua:

- Telefonoa: 94 601 80 08
- E-maila: convocatorias.dgi@ehu.eus

Informazio gehiago:

<http://www.fundaciondm.org/index.php/ayudas>